

Eneko Olasagasti

ZINEMAGILEA

Badatoz

Badatozela bai. Sozialistak badatoz eta zurrumurruak zabaltzen hasiak dira. ETBn eta Hezkuntzan nahi omen dute eragin. Eta popularrek norabide berdinean bultzatuko dute, diote ahots ilunek. Baten batek euskaldunoi beldurra sartu nahi digu gorputzean, Apokalipsi antzeko bat hurbiltzen ariko balitz bezala. Eta beldur eragileak gehiago dira gertukoak urrunagokoak baino. Niri, egia esan, beldur handirik ez dit ematen. Galtzeko gutxi dugun seinale izango da agian. Badira txiringito majoa antolatu dutenak azken hiru hamarkadatan eta horiek beharbada izango dute zergatik kezkatu. Biziraupenerako lekutxo bat eraikitzen saiatu garenek ez dut uste.

Ez da oso urrunera joan behar sozialistek euskal ikus-entzunezkoen alorrean landutakoak aurkitzeko. %5 famatuaren kontuan esaterako, arloko elkarteek osatu zuten Zinema Plataformak bultzaturik, Legebiltzarrean haiek, beste talde batzuen laguntzaz, aurkezturiko Ez legezko proposamenak ireki zuen Dekreturako bidea, eta Gobernua bultzatu aurrekontu berezi bat onartzera ETBk inbertitzeko dirua izan zezan. Eta Legebiltzarrean aurretik egin zen eztabaidan Isabel Celaa sozialistak harro asko aldarrikatu zuen Madrilek, Ministeriotik eta TVEtik, diru gehiago ipinia zuela euskarazko zinea laguntzeko Euskal Herrian



INES URRUTIA

ipinitakoa baino. Orduan aldarrikatutakoari segida emango diotela pentsatu nahi dut. Eta ez dago kontrakoa pentsatzeko motiborik.

IBAIak, Ekoizleen Elkarteak, bultzatzen duen azken proposamena laguntzetarako bide automatikoak ezartzea da. Batzorde baten subjektibotasunik gabe. Bide hau ez dugu Euskal Herrian asmatu. Dagoeneko zenbait herrialdean martxan daude mota honetako laguntzak. Nola ez, Espainian katalanak dira aitzindari. Eta han sozialistek agintzen dute. EIKEN, Ikus-entzunezko Klusterra, gure produktuak, Basque Audiovisual markapean, nazioartean zabaltzeko tresna, ETB, Euskaltel, eta arloko enpresa handien menpe egon da, dago. Agian beste indar metaketa batek eragin dezake enpresa txikiak bertan ahotsa eta beste zerbait ere izan dezagun.

Berriki, Katalunian, hautsak harrotu dituen Zine Legea aurkeztu dute. Besteak beste, katalanaren presentzia zine komertzialetan indartzeko neurriak proposatuz. Neurri horren aurrean larritu direnak ere badira. Alegia, euren txiringittoa arriskuan ikusi dutenak: aretoak eta bikoizketa mundukoak. Bitartean hemen, orain arte behintzat, ez da horrelako legeren beharrik ikusi. Hemen Kulturaren Euskal Plana dauka denbora pasa, eta denbora pasatzeko. Bitartean, dagoena dago. ■

«
Badira txiringito majoa antolatu
dutenak azken hiru hamarkadatan
eta horiek beharbada izango dute
zergatik kezkatu. Biziraupenerako
lekutxo bat eraikitzen saiatu
garenek ez dut uste
»

TXANDAN

Juan Ramon Makuso

Agurrak



Badakit. Iritsi da. Baina hala ere ez dut sinetsi nahi. Hori esan didazu udaberriko lehen egunean. Etxeko atariko gereziondo elurtzen ari den honetan. Ene burua ere zuri geratu da, zure muxua aurpegian itsatsi denean. Une batez izan da, baina nahikoa pentsatzeko ametsak jarraitzen duela. Eta ez da egoskorkezia, ez; nahiko da entzutea bihotzaren abiadura jabetzeko zurea eta nirea ez datozela bat. Hala ere iruditzen zait ez entzutearena beste ihes bat dela. Beste behin. Eta badoaz... Agian benetakoa, hauxe litzateke: bada garaia ikusteko nor-

beraren bakardadea, norberari iristen zaiola unea ikusteko besteak ez duela jarraitzen alboan, oso urrun baizik. Urruntasunak erakusten du benetakoa. Eta bestela gogoratu Teresaren hitzak: “Maiteminduak bere begiak hesgailu batez hornituak ditu; bere aurrean dagoena ikusten ez dio uzten”. Ez hori bakarrik. Ikusten badu ere, begi horiekin bakarrik ikusten du. Eta begirada ez da zuzentzen lehorantz. Aurrean ikusten den bakarra ispiluan islatzen den gure gezurra da. Irudi eza. Beste behin tren geltokian nengoen. Eta benetako agurrak begizatzen nituen. ■